



Pil-pilean

TURKIDIA
Soraluzeko hilabetekaria
2021eko abendua · 381 alea
25 urte zuekin

ANGULARIAK
**CASTRO FAMILIAK 50
URTE DARAMATZA
ANGULATAN**



ME MAKINA
ERREMINTA
MUSEOA

Nondik gatozen ezagutu,
nora goazen jakin ahal izateko





PIL-PILEAN 381

2021eko abendua

Azaleko argazkiaren egilea:
Fernan Oregi.

Aurkibidea

- | | | |
|----|--|---|
| 4 | Elkarrizketa Maite Kaltzakorta | IRITZIA |
| 6 | Begira Argazki rallya | 3 Neuretik Jokin Oregi
<i>Mendikateak, biak ebaki beharrekoak</i> |
| 8 | Zer berri Aktualitateko albisteak | 18 Gutunak Eibar Rugby talderaen eskerrona |
| 14 | Argazki bidez Euri-jasaren ondorioak | 18 Komiki tira |
| 17 | Plazan bazan Umeendako jolasak | 19 Hausnarketa Covid ziurtagiria |
| 20 | Erreportajea Angulariak | 19 Puntua Domentx Uzin <i>Lagunduko bagontsake?</i> |
| 25 | Kirola Adur Odriozola eta Mouad Hina kickboxing borrokalariak | |
| 26 | Kultura Gabonak | |
| 28 | Nondik nora? Patxi Osa | |
| 30 | Pil-pileanen artxibotik Abenduko argazkiak | |
| 34 | Zerbitzuak Zorion-agurrak, oroitzak, iragarki laburrak... | |



Pil-pilean herri komunikabidea

TOKIKOM

Argitaratzailea
Pil-pilean Euskaltzaleen Topagunea
Errabal kalea 15-1, PK 27
20590 Soraluze

Erredakzioa
Ubane Madera
ubane@pilpilean.eus
Egoitz Unamuno
egoitz@pilpilean.eus
605 706 086

Publizitatea
publizitatea@pilpilean.eus

Zuzentzailea
Miren Gallastegi

Diseinua
Goiena
Oier Larreategi (moldaketak)

Maketazioa
Oier Larreategi

Inprimategia:
Gertu Koop.

Banaketa:
Pil-pilean Ekoizpena

Lege Gordailua:
SS-537-2000

Tirada: 2.100 ale

Babesleak

GOKI
erreformak

SORALUCE



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

**KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA**

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia



**SORALUZEKO
UDALA**

Mendikateak, biak ebaki beharrekoak



JOKIN OREGI

Lourdes mendizale porrokatua zen. Amorru biziz igotzen zituen aldapak eta paretak. Tontorrera iritsi bezain pronto oiuhu eta txilio egiten zuen, bihotz taupaden kadentzia mantsotzen zitzaion arte. Barrua askatu beharra, edo akaso, norbaiti zerbait egozteko premia. Misterioari, demagun. Mendi tontorretan aurkitu ohi da bizitzari zentzua ematen dion gakoa. Horregatik saiatzan dira horrenbeste lagun puntaren puntara iristen. Mendia zenbat eta altuago, orduan eta garbiago ikusten omen da argia. Batzuen ustez, helmuga baino inportanteagoa da bidea bera, baina hori diotenez ez dute zapaldu inoiz zortzi mila metrotik gorako mendi tontorrik. Lourdesek egin zuen, birritan. Jakituria bikoitza, bada. Bigarren aldian, beherako bidean, espedizioko kide batek estropezu egin eta heriotzak besoetan hartu arte amildu zen. Han geratu zen gaztearen gorpua, magal izoztuan, bizitzaren zentzua ulertu duen baten lasaitasunaz. Duela hogeita hiru urte gertatu zen ezbeharra. Harrezkerotik, Lourdesek ez du mendirik zapaldu.

Ezkondu zenean irribarre egin zuen, gerrira arteko elur eremu bat zeharkatzeko behar den esfortzu bera eginez. Haurdun zegoela jakin zuenean, malko bat rapel eginez jaitsi zen ezpain muturreraino. Haurra erditu zuenean, ez zuen onartu zilbor-hestea eteterik. Oiuhu eta garrasi egin zuen. Barrua askatu beharra zuen, eta seguraski, norbaiti zerbait egotzi nahi zion. Misterioari, demagun.

Gaur jakin du mendietako izotzak urtzen hasiak direla eta mendizale batzuen gorpuak agerian geratu direla. Isilik geratu da, luze, pare bat egunez. Ondoren, mendirako arropa eta tresneria zaharra bildu ditu ohe gainean. Jantzi egin ditu. Horrela aurkitu dute etxekoek. Senarrak amore eman dio ezpainetan, eta kakaoaren likitsak emaztea zeinen urrun dagoen sentiarazi dio.

Izan ere, Lourdes iritsi da zazpi mila metrora dagoen kanpalekura. Ezin du gehiago. Lehertuta dago. Delirio batek harrapatu du. Hildako lagun gaztea ikusi du, menditik behera oinez, irribarrez. Aldamenean eseri zaio. "Zer egiten duzu hemen?", galdetu dio gazteak. Lourdesek zera erantzun dio: "Zure bila etorri naiz, zu etxera eramateko". Gazteak ez du irribarrerik galdu: "Ez, zu ez zara nire bila etorri, zure bila etorri zara. Eta honez gero jakin beharko zenuke bizitzan badirela lortu ezinezkoak, tontorrera birritan iritsi denak jakin beharko luke, behintzat".

**"DUELA 23 URTE
GERTATU ZEN,
HARREZKEROZTIK,
LOURDESEK EZ DU
MENDIRIK ZAPALDU"**

“Emakumeek espazio fisiko bat behar dute herrian”

TESTUA: EGOITZ UNAMUNO LOIDI.

ARGAZKIA: UBANE MADERA.

Duela urtebete, Debabarreneko hainbat herritan emakumei zuzendutako *Talentua eta aukerak* izeneko ahalduntze eta formazio programa jarri zuten martxan, tartean, Soraluzen. Egitasmoan, formazioa lantzen dute batez ere; alfabetatzea (gazteleraz), gorputzaren zaintza, zaintza-lanak, jostintza... Gaztelekuko lokalean egunero eta lanerako orientazio zerbitzua HHlko lokaletan, astelehen, martitzen eta eguazten goizetan. Maite Kaltzakorta (Mendexa, 1990) da egitasmoan buru-belarri diharduten Zabaltzen kooperatibako bi teknikarietako bat.

Egitasmoak urtebete bete du. Zela dago?

Oso ondo. Nik uste dut oso emaitza politak ari direla ateratzen. Guk "laneko esperientziak" deitzen diogunak oso garrantzitsuak dira eta ikusten dugu poliki-poliki herrian gero eta errazago harremantzen direla. Garapen hori ikustea eta eurekin konpartitzea, oso aberasgarria da denontzat. Nik lan honetan ikasi dudak gauzarik garrantzitsuenetako bat da pertsona bakoitzak bere erritmoa duela. Aldundiak ziurtatu du beste urtebetez behintzat jarraituko dugula, parte-hartze handia dagoelako (41 emakume) eta emaitza onak lortu direlako. Ikusten da herrian beharizan handia dagoela.

Zelakoa da egitasmoan parte hartzen duten emakumeen perfila?

Emakumeak, etorkinak, familia karga handikoak eta orokorrean gizartean babes gutxi dutenak... Marokoarrak dira gehienak, baina badira sahararrak, nigeriarrak, malikoak, palestinarrik eta Soraluzeko hiru emakume ere bai. Alde horretatik, pentsatzen dugu halako egitasmoak etorkinentzako bakarrik direla baina ez, jatorriz bertakoak diren pertsonentzat ere badira. Horrek pena ematen dit.

Parte hartzen diharduten emakumeek zein oztopo nagusi topatzen dituzte?

Hizkuntza eta batez ere paperak lortzea. Pasaporte, NIE...Alde horretatik, oztopo asko

dituzte eta ez die errazten lortzea lanerako baimena, oinarriko beharretarako dirulaguntzak, nazionalitatea... Etorkinentzako legeak ipini dituenak bizi izango balu zer den egoera horretan egotea... Orain dela gutxi gertatu zait pertsona bati bankura laguntzea kontu bat zabaltzera eta langileak esatea ezetz, ezin duela behar duelako pasaporte eta ez dakit zenbat gauza gehiago. Gero SOS Arrazakeriaren bitartez jakin dugu, baietz, edozein pertsonak duela eskubidea kontu bat zabaltzeko... Pentsa.

Lorpen positiboen aldetik zer azpimarratuko zenuke?

Formazio eta lan esperientziak eta euren arteko harreman sarea... Sare hori oso garrantzitsua da elkar babestu eta animatu daitezten, baita gainerako soraluzetarrekin osatu dezaketena sarea ere.

Horri begira, aurten, hainbat ekimen publiko garatu dituzue herrian.

Bai. Martxoaren 8rako musukoak, Munduko Arrozak eta talo postuaren ekimenez gain, hartuemanak izan ditugu artisauekin, Sororak talde feministako kideekin, hainbat herritarrekin umeendako jolasak eta arropak konpartitzeko, hilero bisitan joaten gara musika eskolara, ludoteka eta liburutegia ezagutzera... Horrez gain, euskararekiko sentsibilizazioa ere lantzen dugu Pil-pileanekin.

Pertsona hauek babesleku baten bila datoz Soraluzera eta alde horretatik, herri txikia den aldetik, herri polita da eurentzat, hemen herritarrek elkar ezagutzen duzue eta sarea egiteko aukera gehiago ematen duelako. Elkartasun hori ikusten da Udalaren aldetik, zerbitzuetatik, taldeetatik... Herritarren aldetik somatu dudana da kuriositatea eta jakinmina, hizkuntzarekiko, gastronomiarekiko, erlijioarekiko... Eta emakumeen partetik, ulertu behar da bizi duten egoeran irekitzea ez dela erraza, baina badihardute. Etorkizunera begira, nire ustez oso garrantzitsua izango litzateke emakumeentzako espazio fisiko bat izatea, elkartu eta harremandu ahal izateko eta sarea ez eteteko.



Patxada

ARGAZKIA: ADIEL ZABALA AIZPURUA

TESTUA: UBANE MADERA ZANGITU

Kontrargi Argazki Kolektiboak esan duenez, aurtan, Adiel Zabala Aizpurua argazkilariak eskuratu du rallyra aurkeztutako epaimahaiaren puntuaziorik handiena. Bigarren saria, berriz, Jose Luis Rodriguez Morani eman diote. Hirugarrena Azpeitiko Igor Froilan Arantzamendiri eta herriko onenaren saria Mikel Valero soraluzetarrari. Argazkilariak honako gaien araberako argazkiak atera zituzten: aztarnak, txoko xarmagarria, patxada, Mendiolako industrialdea eta bezeroak. Argazki irabazlea Patxada gaiarekin lotutakoa da eta bertako protagonista ezagun askoa da Soraluzen: Dante txakurra. Jose Lukerena eta Itsaso Martinena da. Karroan eroaten dute, arazoak baititu mokorrean, ukondoan eta hanka baten. 6 hilabete zituenean egin zioten lehen ebakuntza. Harrezkero benetan maitekiri zaintzen dute.





Inkesta komun publiko berriez

EH Bildu koalizioak komun publiko berrien inguruan egindako inkestaren emaitzak aztertu dituzte Hirigintza Batzordean.

EH Bildu koalizioak jakinarazi duenez, 106 herritarrek parte hartu dute komun publikoei buruz egin duten inkestan.

Datozen hilabeteotan, galdeketaren emaitzak Udaleko Hirigintza Batzordean aztertuko dituzte alderdi politikoetako udal ordezkariak zein udal teknikariak, elkarlanean. EH Bilduren esanetan, komun publikoek beharko lituzketen ezaugarriak zein berau ezartzeko leku proposamenen aukera teknikoak aztertuko dituzte egokiena aukeratzeko.

Erosoak eta garbiak

Jasotako erantzunei dagokienez, berriz, laburbilduz, inkestan parte hartu duten herritar gehienek ustez, komun publikoak izan beharko liriteke "txukunak, erosoak eta edozein joateko modukoak" eta egon beharko liriteke "zainduta eta garbi".

Xehetasunetan sartuta, denontzat egokitutako komunak nahi ditu jendeak: "Irisgarriak, erosoak, garbiak eta argiztatuak". Eta garrantzitsutzat jotzen dute



Gaur egungo komunak.

bertan papera eta xaboia ere eskura izatea.

Kokapena eta ezaugarriak zehazteko

EH Bilduk komun publiko berriak egitea proposatu zuen 2021eko udal aurrekontuetarako. Udal Gobernuak proposamenarekin ados azaldu zen eta orain zelako komunak eta haien kokapenak zein izan behar duen landuko dute Udalean, eta horretarako dagoeneko hasita daude hainbat kokapen eta aurrekontu aztertzen.

Haurreskolako izen-ematea

Soraluzeko Haurreskolatik jakinarazi dutenez, orain arte Haurreskolako izen-ematerako kontuan hartzen ziren datak aldatu egin dituzte.

Haurreskolako Partzuergotik esan dietenez, aurrerantzean, datorren ikasturtean Haurreskolan hasi nahi duten haurrek apirillean egin behar dute izen-ematea. Hala ere, gaineratu dute ikasturtean zehar hasi nahi duten haurrentzat izen emate epea ikasturtean zehar zabalik egongo dela.

Kiroldegiko abonua kanpaina

Arane Udal Kiroldegiak datorren urterako abonamendu kanpaina jarri du abian. Abenduaren 31n amaituko da abonamenduak berritu, aldatu edo eteteke epea. Kiroldegiko abonatu direnei automatikoki berrituko zaie abonamendua, abenduaren 31 aurretik kontrakorik adierazten ez badute. Kuota helbideratu gabe dutenek abenduaren 31 baino lehen egin beharko dute abonua berritzeko ordainketa. Aldaketak ere egun horretarako jakinarazi beharko dira.


BETI ZUREKIN GIPUZKOA 943 903 450

Bertako Ilogoiak-ekin, urteko 365 egunetan 24 orduz izango duzu gure zerbitzua. Salbuespenik gabe.

www.bertako.eus



Casa del Pueblo tabernako Gabonetako otarren irabazleak



Eskerrik asko etortzearren eta Gabon zoriontsuak izan!



"Soraluze inguruko mapa aztertzea gustatu zait gehien"

JUAN TOUS MELIÁ IDAZLEA

UBANE MADERA ZANGITU

ARGAZKIAK: JUAN TOUS MELIÁ

Juan Tous Meliák (Mallorca, 1941) *La Real Fábrica de Placencia de las Armas, 1538-1865 Según idea de Florencio Joseph de Lamot, dibujo de Joseph Zameza (1756) y grabado de Juan Fernando Palomino (1757)* izeneko liburua argitaratu du. 236 orrialde eta hainbat atal ditu. Besteak beste, Soraluzeko su-armei buruzko atal bat, herrian izan ziren hiru errege-etxeei buruzko beste bat, garai hartako herriaren deskribapena eta beste. Sorapediaren arabera, Soraluzeko Errege Fabrikari buruz inoiz idatzi den libururik osatuenetako bat.

Liburuaren deskribapen labur bat egin diezagukezu?

Liburuaren helburua José Lamotek 1757an argitaratu

zuen grabatuaren transkripzio komentatua egitea zen, balio historiko handiko dokumentua delako hura eta, gainera, Debarroko industria-tradizio handia berresten duen testigantza delako. Grabatua bera harira iristeko harria da. **Noiz hasi zinen liburua prestatzen?** 2020ko Santa Barbara egunean hasi nintzen egiten, nahiz eta lehenago ere saiatu nintzen, 1999an, *El Tigre. Un cañón de a 16. Historia y leyenda* liburua idazten ari nintzela. Nire urtebetetze egunean bukatu nuen, joan den irailaren 17an. COVID-19a dela eta, ia ez naiz etxetik mugitu eta nire liburutegiko eta webguneko liburu eta artikulu asko kontsultatu ditut; gauza zehatz batzuetarako oso lagungarriak izan dira Juan Carlos Astiazaran jaunaren aholkuak; eta,

itzulpenetarako, berriz, Pelayo Bernedo Azpiri jaunarenak.

Izan ere, euskarazko testuak ere baditu, ezta?

Grabatua gaztelaniaz dagoen arren, termino asko idatzi nituen euskarazko baliokidearekin [taket artean eta alderantziz], Googleren eta itzultzaile neuronalaren laguntzaz. Itzultzea gehien kostatu zitzaidan hitza honako hau izan zen, *Tolare* [Sagardoa egiten den eraikina], Labayru Hiztegian ere ez baitzeturren, nahiz eta bazetorren «dolare» [Lagar].

Zergatik erabaki zenuen Soraluzeko arma fabrikari buruz idaztea?

Esan dudan moduan, grabatua xehetasunik txikieneraino xehatzea interesatzen zitzaidan. Liburua idatzi ondoren asmatu nuen izenburua. Ez zen lan erraza izan. Soraluzeko Armen Errege Fabrika eta beste konbinazio batzuk erabili nituen buruan titulu modura, baina garaiz kanpokoak ziren. Azkenik, «(c.1538 – 1865)» gehitu nuen. Liburua idazten ari nintzela, berriz, Lamoten grabatua argitaratu zela jakin nuen eta ale bat eskatu nion Soraluzeko Udalari. Hura irakurri ondoren, kointzidentziak ebitatu eta perfekzio-grinari ekin nion. **Liburua idatzi bitartean, zer da gehien gustatu zaizuna?** Soraluze inguruko maparen azterketa. Hari buruz galdetzen

"JOSE LAMOTEN GRABATUAREN TRANSKRIPZIO KOMENTATUA EGITEA ZEN HELBURUA"



Juan Tous Meliá berak idatzitako liburuarekin, bere etxean.

Biografia laburra

Juan Tous Meliá Palman (Mallorca) jaio zen, 1941ean. Militarra profesioz (artilleroa) eta Zientzietan lizentziaduna. Zaragozako Akademia Militar Orokorreko irakaslea izan zen. Azken destinoak Kanarietan izan zituen: Museo Militarren (1992-2000) eta Artxibo Militarren (2006-2012) zuzendari. Ikerketa historikoko lan ugari argitaratu ditu, batik bat kartografia eta artilleria esparruetan. Tenerifeko zein Kanarietako hainbat elkarte kulturalen bazkide eta laguntzailea da.

nion nire buruari, ea zergatik zen zirkularra eta ea noraino iristen zen. Herriko mapa behin baino gehiagotan aztertu eta testu ugari irakurri ondoren, eskalari erreparatu nion eta erradioarekin bat zetorrela konturatu nintzen. Erantzuna liburuan dator; eta, baita ere, azalean ageri den zirkulu berdeari buruzko erantzuna.

Zein helburu lortu nahiko zenuke liburuen argitalpenarekin?
Dibulgazioa eta liburutegi espezializatueta banatzea.

"DIBULGAZIOA ETA LIBURUA LIBURUTEGI ESPEZIALIZATUETARA IRISTEA LORTU NAHIKU NUKE"

Ezagutzen zenuen lehenagotik Soraluzeko arma fabrika? Egon zara sekula bertan?

Ez, baina, gaur egungo baliabideekin, beti da posible bisita birtuala egitea.

Auto-argitalpena eginez argitaratu duzu liburua; zenbat ale?

Autoedizio honetan, testuak idazteaz gain, guztiak makinetan sartzeko maketatu eta prestatu ditut, bestela ekonomikoki bideraezina izango litzateke. Tirada 50 alekoa izan da, eta, 100 alekoa ere izan daiteke.

Liburua eskura daiteke nonbait?

Liburuaren neurriak dira 21x29,2 eta, gutxi-gorabehera, kilo bat pisatzen du. Posta arruntez bidaltzeak 5,15 euro balio du, eta prezioa 20 eurokoa da. Guztira, bada, 25,15 euro. Hala ere, liburua erosteko interesa duten bi lagun auzo

berean bizi badira, bidalketa-gastuak parteka ditzakete, Kanariar Uharteetatik bi ale bidaltzeak 5,60 euro balio baitu. Tarifa hori 2 kilotik beherakoentzat da, 2.001 gramo pisatuz gero, pakete bezala bidali beharko litzateke eta garestiagoa da: 2-5 kilo bitartean, 18,35 euro eta 15-20 kilo bitartean, 38,15 euro. **Besterik nahi duzu gaineratu?** Irakurleek zerbait gehiago jakin nahiko balute, honako helbidera idatz dezakete: tousmelia@gmail.com.

"DNA MAKETATU ETA PRESTATU DUT, BESTELA EKONOMIKOKI BIDERA EZINA IZANGO LITZATEKE"

EUSKAL ONDARE INDUSTRIALA,
ERAKUSKETAK, KULTUR EKITALDIAK,
BISITA GIDATUAK...
BIZITZAZ BETERIKO MUSEOA.
Parte hartu nahi duzu?



**Nondik gatozen ezagutu,
nora goazen jakin ahal izateko**



Errementarien garaitik XIX. mendera arteko industriaren bilakaera ezagutzeko museo aparta da Elgoibarkoa. Aire bidezko uhal eta poleen bitartez osatutako transmisio sistema erabiltzen zuen mekanizazio tailer batetako giroa zintzoki erreproduzitzen du. Museo bizia da, makina guztiak martxan ikus daitezke. Estatuan bakarra.

Ez galdu esperientzia ikusgarri hau bizitzeko aukera!

Bisitak

Bisita librea, gidatua, audiogidarekin,
taldeentzat, ikastetxeentzat egokitua,
enpresentzat, familientzat ...





Antzinako ogibideak



Galtzar dauden antzinako ogibideen zuzeneko erakustaldiak.

Kultur ekitaldiak



Euskal Herriko arte diziplina ezberdinak: kontzertuak, hitzaldiak, dantza ikuskizunak...

Zientzia eta teknologia tailerrak



10-14 urte bitarteko gazteei zuzendutako Bizilabe tailerrak, erronka errealekin.



Espazioen alokairua

Museoko espazioa erabilera anitzetarako alokatzeko aukera dago: bilerak, ekitaldiak, aurkezpenak, ikusentzunezkoak, telebista saioak etab. Leku paregabean, nortasun propioa duena!

T. 943 74 84 56

Makina Erreminta Museoa
Elgoibar, Gipuzkoa
www.museoa.eus
museoa@museoa.eus



Ufala

UBANE MADERA ZANGITU

ARGAZKIAK: AIORA ELIZBURU, FERNAN OREGI, SORALUZЕKO UDALA ETA UBANE MADERA

22 egunetz euria egin eta eta gero, joan den abenduaren 10ean azken hogeitaka urteetako ufalik handiena ekarri zuen Deba ibaiak. Errepide mozketak eta buruhausteak eragin zituzten ubideetatik gainezka egin zuten urek eta goitik behera etorri ziren luiziek. Argazkiek erakusten duten moduan, errepideek eta ibilgailuen joan-etorriek jasan zituzten kalterik handienak eta bariku hartan benetan nekezak izan ziren herriko errepideetako joan-etorriak. Zorionez, ibilgailu baten istripua izan ezik, ez zen bestelako kalte pertsonalik izan eta hurrengo egunetan onbideratu zen egoera. Skate-parkeko luizia, berriz, garbitu dute udal langileak.





PUBLIZITATEA

Jakinaraz plazaerria, bertanahi bertara



Batzoki

eguzteko meza
susiak
karta eta txakak

egitekoak eta
hamburgerak
entzaga bereziak

Basila eta
logoa erako
buzkarak

Erretelak: 943 75 20 10

Hortz klinika

Errabai 1
Tel.: 943 75 16 13

Javier Alonso
Mediku Estomatologoa
K.Z. 48.000.590

Katia Gustin
Odontologoa
K.Z. 48.001.541

27 urteko esperientzia
odontologia, protesak,
odontopediatria, ortodontia,
implantak, estetika,
Zerbitzu radiologiko orokorra (XO):
ekianerria, ortu eta tele.



KLB6

Kalebarren 6
943 67 70 30

Muler eta roden
modulak

Facebook icon

BSB *Paga Jaena*
VERO MODA

ISOLID
BONICH

new balance



Kontulan

aholkularitza
ABOKATUAK

Errenta, zitapenak · Administrazioa lanak
Tratamendu burokratikoak · Lan-erleko aholkularitza
Enpresa konstituzio/leohizunak · Kontabilitatea

Santa Ana 13 · 1. est. 20190 Sarriena
Tel. 943 75 17 82 / Fax 943 75 01 82

Soraleuzeko Kooperatiba Elkarteak
1900etako zaharkit

Arraindegia, janaria,
erropak, etsaka freskoak,
etsera eramateko zerbitzua

Astelehenetik ostiralera:
09:30 - 13:30 eta 17:00 - 20:45
Larunbatik: 09:30 - 13:00

Kalebarren 4
Tel.: 943 75 13 45



MABEL
IN-FWPAINDEGIA

Isorentzako keratina
tratamendua
Depilazioa
Be-sustrairik gabeko
permanentes
Makilajea
Manikura
erdiaurkorrak
-Solariuma

Errabai 1
Tel.: 943 75 14 89



Mimar

Beapaindegia
Estetika
Solariuma

Gabellan 4, Ibañeta
Tel.: 943 75 15 11 - 682 51 14 04



MENDIZABAL
okindegia

Ogia · Prentza · Gosariak

Astelehenetik ostiralera:
08:00 - 13:00
17:00 - 20:00
Larunbatik eta igandeak:
08:30 - 13:15

Kalebarren 10
Tel.: 943 75 13 99



BOLIT
TABERNA

Pisotok, ardoak,
kontinutak
Gazte-girako festa



ION MURGIZU BAKAIKOA
PINTOREA

arreta
dekoratiboa
industriala

Tel. 943 75 13 24 Mug. 662 77 70 30

FOGASLER
ITURGINTZA

943 75 16 46 (Soraleuz) · 943 71 82 49 (Oñati)
fogasleriturgintza@gmail.com



Txoko

Eguneko meza,
platea kontinutak,
hamburgerak,
egitekoak,
rasiak,
pizzaak,
gosiak...
Enkarguak egiten dira
Tel. 943 75 17 89



ARRANO
taberna

Etaneri eta gosiak
etxeko pintxoak

Etxaburueta 6



JUAN MARI
ARRAINDEGIA

ARRAINDEGIA
MORATZ PLAZA - 943 75 24 48

Ardo freskoa
Etsera eramateko zerbitzua
Enkarguak hartzen ditugu



TXURITXU GOZOTEGIA

Astelehenetik ostiralera:
08:30-13:00 eta 16:30-20:30

Larunbatik: 08:30-13:30
Igandeak: 08:30-14:30

Gosariak, ogia,
grosak, pastak,
kontinutak...
Etsera eramateko
zerbitzua

Tel. 943 75 24 43



Criado
Fruitategia Unaiategia

Enkarguak Whatsapppe
Elberako zerbitzua
Berrikoak & delicatessen

Astelehenetik ostiralera:
09:00-13:00 eta 17:00-20:00
Larunbatik: 08:00-13:00

620 958 536



KM design

KIRU MONTAJAK

943 76 99 85

kirumontajak@ymhoo.es
www.kmdesign.es

Pol. Amilaga 5
BERGARA

- Disenatueta Fabrikazio lanak
- Sukotoak
- Horma-oinarriak
- Logelak
- Zonak
- Aloak...
- Arotzeria lanak oro har
- Instalazioak



Hamaka ikustekoak

Aurki itzazu bi inudion artean dauden aldeak. Hamaka dira guztira.



Sudokua

Egutegiko azken hila abendua da. Lotazila edo neguila ere esaten zaio. Bete itzazu hutsuneak abendua hitza osatzen duten hizkiez (A, B, E, N, D eta U). Gogoratu hizki bakoitzak behin agertu behar duela lerro, zutabe eta area bakoitzeko.

	E	B			N
	U				
		D		A	
	A		U		
				B	
A			E	D	

Bete itzazu hutsuneak argindarraren domino zati honek zentzua izan dezan.

DOMINOAN

Mezua

Marrakitxoak ezkututzen duten esatera ezin hobeto dihoakio mutiko honi. Jarri marrazki bakoitzaren azpian bere hizkia eta osatu esatera. Erabili irudi-alfabetoa.



Bide batez, irudia margotu.



ALFABETOA



GUTUNAK

Eibar Rugby Taldearen eskerrona

EIBAR RUGBY TALDEAREN IZENEAN, EIDER OLARRETA SAINZ-MAZA

Abenduaren 14an, martitzena, Eibar Rugby Taldeko lehen mailako nesken eta mutilen taldeek Soraluzeko futbol zelaian entrenatzeko aukera izan zuten eta eskerrona helarazi nahi dugu horregatik. Kontua da Unbeko Kiroldegira (han jokutzen dute Eibar Rugby Taldeko taldeek) igotzeko bidean lur-jausi bat gertatu zela, sarbidea oztopatuz. Horren ondorioz, joan den ostiralean, instalazioa eta sarbidea itxi egingo zituztela jakinarazi ziguten. Beraz, klubeko talde guztiak entrenatzeko toki gabe geratu ziren, martitzenera arte. Baina, Soraluzeko lantaldeari esker, lehen mailako neskek, lehen

mailako mutilek eta akademietako zenbait jokalarik entrenatzen jarraitzeko aukera izan zuten. Eibar Rugby Taldeak, taldeko zuzendaritza-batzordearen izenean, eskerrak eman die erabaki horretan inplikaturik egon diren partaideei, alkateari, kiroletako zinegotziari, futboleko arduradunari...

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.000 (espazioak barne).

Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena. Gutuna helarazteko bideak: aldizkaria@pilpilean.eus

KOMIKI TIRA



HAUSNARKETA

Covid ziurtagiria

Eremu gehiagotara zabaltzeko Eusko Jaurlaritzaren eskaera onartu du EAEko Auzitegi Nagusiak. Zuri zer iruditzen zaizu?



SOLEDAD DEL BOSQUE

"Ez zait ondo iruditzen. Norberak norbere gaixotasunei edo txertoei buruz intimitatea izateko eskubidea du. Bestalde, adituek edo guk baino gehiago dakitenek esaten badute txertoa hartu egin behar dela, uste dut txertoa hartzeko erantzukizuna izan beharko genukeela".



BITTOR MURGUZUR

"Erabat ados nago. Lehenago ipini beharko lukete eta leku gehiagotan, itxita dauden leku guztietan. Denon segurtasuna bermatzen du. Askok erlaxatu gara. Tabernetan ikusten da. Uste dut, ziurtagiriaz gainera, maskarak derrigorrezkoa izaten segitu behar duela".



MOISES ALTUNA

"Ondo pentsatzen zait. Komenigarria da. Ikusten dena da egunean-egunean txarrago doala eta zenbat eta lehenago kendu, hobe. Txertoa hartu nahi ez dutenek eurek ikusiko dute zer egin. Gero tokatzen bazaie eurei, ba euren arazoa izango da".



ITZIAR AGIRRE

"Ez zait ondo iruditzen. Ez da konponbidea, badaude beste bide batzuk. Bestalde, ikusten ari naizena da, txertatuta egon ala ez, jendea euren artean ari dela enfrentatzen. Uste dut, baita ere, eskubideak galtzen ari garela eta zerbitzarietara eta halakoei euren ez den lan bat ematen ari garela".

PUNTUA



DOMENTX UZIN

Ta lagunduko bagontsake?

Autobusera berandu noia, betiko bezela. Aszentsoretik urten eta Estaziño aldera jo dot. Parian kanpandorria. Gora begiratu eta bi hegazti ikusi ditut tximistorratzian bueltan hegaran. Buztan luze-luzia dake. Mikak izan bihar dabe. Segiduan beste bat heldu da txara aldetik, eta bai, honi ikusi dotsadaz alde zurixak. Mikak dira. Mendi batetik bestera hegan. Herri estua izatiak badauzka bere gauza kuriosuak. Lagun batek arrano batzuk be sarri ikusten zittuala esaostan. Salon aldetik Agarre aldera hegan. Beliak be sarri ibili ohi dira Mugarri aldiari, Egotza inguruetan.

Baina, herrixan usua besterik ez dabil. Nun dabiz sasoi bateko artatxoriak? Frontoian ibiltzen dira txolarre gutxi batzuk noizian behin. Buztanikara bakarti horiren bat. Musika Eskola ondoko zuhaitzetan egon dira gutxitan eta beheko frontoiko bi urkixetan. Estaziñoako bus geltoki pareko sail txixak be ibili ohi dira txorixak. Beste herri batzuetan txori mordia ikusi ohi dot eta demaseko tristuria emoten dosta Plaentxian hain gutxi ikustiak. Zelanbait lagunduko bagontsake? Nik laster ipiniko ditut haziz betetako jantokitxuek neguan txorixeri laguntzeko. Gustora geratuko naiz begira gerturatuko diran txonta eta burbeltzeri. Suerte piskatekin amilotsen bat be ikusikot".

COVID PASAPORTERIK GABE ERE
BIZITZA SOZIALA EGIN LITEKEEN
TOKI BAKARRERA

ALEGIA, EROSKETETARA

NAHI BADUZU ETORRI

Zailtasun guztien gainetik, angularari

Orain dela 30-40 bat urte, Soraluzeke etxe askotan angulak jaten ziren sasoi honetan, Gabonetan. Gaur egun, zoritxarrez, oso gutxiren eskura dago gutizia hori. Aurten, angula kiloa 1.000 eurotan ari dira saltzen. Soraluzen, baina, badira angulak urtean hainbat bider jaten dituztenak. Castro familia da horietako bat.

Testua: **Ubane Madera Zangitu**. Argazkiak: **Fernan Oregi**.

Castro familia eguraldiari eta itsas-mareei begira bizi da hilabeteotan. Angula garaian gaude eta angulariak dira Maudilio aita, Maider, Maikel eta Kaiet anai-arrebak eta Ruben suhia. Azaroaren 15etik urtarrilaren 31ra arte dute angulari lizentzia erabiltzeko baimena. Denbora labur hori ahalik eta gehien aprobetxatzen ahalegintzen dira.

Maudilio Castro erretiratuta dago eta gauero joaten da Debako itsasadarrera: "Ez dut beste zereginik eta gauero joaten naiz. Ez bada angularik irtetzen, ba beste zerbait egiten dut, adibidez, lupiak arrantzatu. Lupiek angulak jaten dituzte eta sasoi honetan, haiek ere doaz itsasadarretik gora, beraz, lupiak harrapatzeko sasoi ona da".

"Besteok ahal dugunean eta momentu aproposa dela uste dugunean joaten gara", gaineratu du Maider Castro alabak.

Baldintza gogorrek bete behar

Izan ere, angulak harrapatzera ezin da norberak nahi edo ahal duenean joan. Baldintza benetan gogorretan jarduten dute angulariek. Aingiren kumeak ilunetan, ahalik eta eguraldirik txarrenarekin, ilberrian eta marea baxuarekin, igotzen ari den bitartean harrapatu behar dira. Gainera, jardunaldi luzeak egin behar izaten dira: "Marea igo arte egoten gara. Sei ordu han, gehi ordu bat lehenago lekua hartzeko. Hori bai, batzuetan hara zoaz, marea erdi itxaroten duzu eta ikusten baduzu ez dela angularik irtingo, joan egiten zara", kontatu du Maiderrek.



Asko lizentzia barik

Gaur egun, Gipuzkoan, Deban, Urolan eta Orian arrantzatzen dira angulak. Castrotarrek Deban arrantzatzeko lizentzia dute. Han, debekatuta dago txalupetatik arrantzatzea, beraz, itsasadar bazterretatik arrantzatzen dituzte angulak, kalatokietatik, eskuz, zetabearekin. Debako kalatokiak zehaztuta daude, gutxi-gorabehera. Han, zazpi dira legezkoak: "Futbol-zelaitik gora dagoen trenbidearen zubipetik, Mutrikurako bide inguruko ortuetaraino egoten gara angulak harrapatzen. Banaka joaten gara. Baina lekua beste norbaitekin konpartitu ahal duzu. Halakoetan, angulak harrapatzeko zetabea txandaka botatzen dugu. Gaur egun, Deban, jende gehien egon izan denean, 150 arrantzale inguru egon izan gara. Baina, esan beharra dago horietatik 75 bat lizentzia gabekoak direla. Deban, guztira, 180 lizentzia pasa daude angulak harrapatzeko eta urtero berritu behar dira, bestela lizentzia galdu egiten da eta ezin da berreskuratu, jada ez dute lizentzia berririk ematen".

Zenbat eta eguraldi eskasagoa, hobe

Uretako botekin, uretako arropekin eta frontalarekin jantzita arrantzatu behar izaten dute angulariek. "Frontala zetabeaz zer harrapatzen duzun ikusteko da, bestela, argi gabe egoten gara", dio Mainerrek. "Beste guztia euriarengatik da. Busti-bustita egoten gara. Nik, adibidez, mugikorra autoan lagatzen dut, ez bustitze".

Izan ere, kasu honetan, eguraldi txarra angularien lagun bilakatzen da: "Botaldiko 20-30 angula harrapatzen ari zarenean ekaitza baldin

Maudilio eta Maider Castro eta Ibai García Castro angulak harrapatzeko lanabesekin.

3

Angula larbek hiru urteko bidaia egiten dute Europara iritsi arte

Itsasoan jaio arren, ibaietan bizi dira

Bitxikieriaz inguratutako jakia da angula. Bizitzaren zati bat aingirak aztertzen pasa zuen Johannes Schmidt daniar biologoak 1904 urtetik aurrera Ozeano Atlantikoan zehar leptocefalus larbaren migrazioa eta garapena jarraitu zituen. Ale txikiak, hau da, 2,50 mm ingurukoak, Bermudetako artxipelagoaren hegoaldean, Sargazoen itsasoan, harrapatzen zirela jabetu zen eta horregatik ondorioztatu zuen aingirek errunaldia itsaso horretan bertan, 400 eta 1000 metroko sakonera artean eta martxotik ekainera bitartean egiten zutela.



Angulak.

6.000 kilometro

Uda bukaeran edo udazken hasieran, eztei bidaiari ekiten diote, hau da, Sargazoen itsaso aldera abiatzen dira, eta bidaiak gutxi gorabehera urtebete irauten du. Erruterakoan, eme bakoitzak hamar mila arrautza inguru erruten ditu eta ondoren hil egiten da, horrela bere bizi-zikloa beteaz.

Arrautzetatik milioika larba jaiotzen dira, eta Atlantikoko itsas eta haize korronteek 6.000 kilometro eta hiru urtean zehar arrastaka eramaten dituzte. Ordurako, 75 mm-ko luzera dute eta Europako plataforma kontinentalera iristen direnean luzera eta zabalera gutxitu eta larba horiek angula bihurtzen dira.

Preziatuak, zuriak

Bestalde, aingira katadromoa da; hau da, ibaietan bizi da baina itsasoan ugaltzen da.

"Ur gazitik datozenean angulak zuriak dira, baina gorputza ur gozotan egokitzeko hasten zaienean, ilundu egiten zaie bizkar-hezurra. Jateko, angula zuriak dira preziatuak. Beltzak, jatean kraska egiten dute eta askok hori ez du gustuko", kontatu du Maider Castrok.

badator haize, txingor eta guzti, 20-30 angulaharrapatzetik 80-100 harrapatzera pasatzen zara" kontatu du Maudiliok.

Gau bakoitzean 100-200 gramo

Zetabea bota eta atera eta haren sarean geratzen diren angulak etxera. Horixe da angularen jardutekoa, angulak botaldika ateratzea: "Ni bota eta bota ibiltzen naiz, nahiz eta banaka batzuk besterik ez harrapatu, gero horiek arrantzarako erabiltzen ditut. Adibidez, gau batean gerta liteke tirada baten 10 angula bakarrik hartzea. Hori oso gutxi da. Tiraldi onak dira angulak elkarki kiribilduta azaltzen direnean, baina hori, asko jota, urtean behin bakarrik gertatzen da. Normalena da egun txar batean, tiraldi batean 4-5-6-10 angula ateratzea. Merezi duen tiraldi bat, berriz, izango litzateke etengabe tiraldiak egiten 30 gramo baino gutxiago ateratzen denean tiraldiko. Aldiz, gau on-ona da horrenbeste angula dagoenean ezen eskukadaka ateratzen dituzula, akaso 100 gramo. Hori pasa daiteke denboraldi bakoitzeko gau bakarrean. Nik 2019an egun on bat izan nuen, hori bai, ondo ahaleginduta. Gaur egun, gau on batean, kilo bat kilo eta erdi harrapa dezakegu".

Gau bakarrean 9-10 kilo

Maudiliok ere ondo gordeta du buruan bere gaurik onenatariko bat, gutxi izaten diren

horietakoa: "Behin Maikelekin joan nintzen baten, angula mordoa ateratzen hasi ginen. Kaxatik irten eta guzti egiten ziren. Bien artean, 9-10 kilo angula harrapatu genituen. Gu Gabonetan, janda gaude angulak bazkaltzeko eta angulak afaltzeko. Baina bestela, gau normal batean 100, 150, 200 gramo hartzen ditugu eta etxeko bizitokian mantentzen ditugu. Horrela beti dugu angula arrantzarako erabiltzeko prest eta jateko ere, gehiago gustatzen zaigu angula freskoak jatea".

Aitarengandik

Castrotarrei Maudilio aitarengandik datorkie arrantzarako zaletasuna. Baita angulak harrapatzekoa ere. Berez, barruko aldeko herri batekoa (Yugueros, Leon) da Maudilio baina kontatu duenez, beti ibili izan da arrantzan: "Nire jaioterritik gertu erreketan arrantzatzen nuen eta hona etorri nintzenean itsasoan arrantzatzen hasi nintzen. Kainaberarekin hasi nintzen eta angulariak ikusi ondoren, neuk ere probatu nahi izan nuen angulen arrantza. Horrela hasi nintzen".

Maudilio hasi eta gero, seme-alabak gehitu zitzaizkion. "Ni 12-13 urterekin hasi nintzen aitarekin", dio Mainerrek. Kontatu duenez, gainera, anguletan dabilen neska bakarrenetarikoa da. Gaur egunera arte, beste emakume bakar batekin elkartu da arrantzan.

Akaso, azken angulariak

Castrotarrek barru-barruan daramate, bada, arrantzarako zaletasuna, baina batik bat, angulak arrantzatzekoa. Kezkaz ikusten eurak moduko angularien etorkizuna. Izan ere, gaur egun, ziurgabetasun egoeran bizi dira angulak modu ez profesionalean harrapatzen dituzten arrantzaileak, modu errecreatiboan (laket-arrantzan) harrapatzen dituztenak, alegia.

Are gehiago, akaso, Castrotarrak eta haiek moduan angulak laketa-arrantza baliatuta harrapatzen dituztenak azken angulariak izango dira.

Espezia asko gutxitu da azken urteotan. Urteak dira Eusko Jaurlaritzak ez duela haiek arrantzatzeko lizentzia berririk ematen eta Europak angulak harrapatzeko dauden baimenak kentzea eta angula babestutako espezie bilakatzea nahi du. Aurten, adibidez, euskal angulariek justu-justu lortu dute arrantzarako baimena, Mainer Castrok kontatu duenez: "Aurten, Eusko Jaurlaritzak ez zuen baimenik eman nahi. Angularen arrantza debekatzeko lehen gorbenua izan nahi zuen. Angularen kostera kendu nahi zuen. Horri aurre egiteko, inguruko angularien artean Euskadiko Angularien Elkarte sortu genuen. Gure ustez, baztertzaila da Jaurlaritzaren erabakia. Europak oraindik ez du debekurik eman. Asturiarrek, kantabiarrek eta frantsesek arrantza ahal dute eta guk ez? Iaz ere ez zen lizentziarik eman, pandemiarengatik. Azkenean, aurten, elkarte sortu-berriaren indarrari esker, lortu ditugu lizentziak. Hemendik aurrera, berriz, ikusi egin behar. Elkartetik ohartarazi dute akaso angulak harrapatzen segitzeko profesional bilakatu beharko garela, autonomo egin eta gero kupoak ipiniko lituzkete. Hori bai, gero eskubidea izango genuke lonjetan angulak saltzeko izan ere,



Maudilio eta Maider Castro, angulatarko jantziekin eta tresnekin.

**ARRANTZARAKO
ZALETASUNA MAUDILIO
CASTRORENGANDIK
DATORKIO HAREN
FAMILIARI**

**ANGULAK
HARRAPATEKO DAUDEN
LIZENTZIAK KENDU
EGIN NAHI DITU
EUROPAK**

1908

Telesforo de Aranzadik
1908an kontatu zuen
angula opilak egiten zirela

1970

70eko hamarkadatik
aurrera handitu zen
angulari kopurua

150-200

Castrotarren urtero
150-200 gramo angula
botatzen dituzte ibaira

Maidar Castro bere aita Maudiliok
egindako zetabea uretara botatzen.



laket-arrantzan harrapatzen diren angulak saltzea debekatuta dago, nahiz eta Debako jatetxe pare batean saltzen dituzten bertako angulak. Halakoak ez badituzte kontrolatzen, ez dutelako nahi da".

Ganadua elikatzeko

Angulen gutxitzearen adibidea badakar Gipuzkoako Foru Aldundiak. Jasota duenez, 1908an Euskal-Erria aldizkarian argitaratu zen artikulu batean, Telesforo de Aranzadik honako hauxe dio XIX. mende bukaeran eta XX.aren hasieran harrapatzen zen angula kopuruari buruz: "Angula hain ugaria da, non opilak egiteko eta ganadua elikatzeko ere erabiltzen den".

Kontsumoa eta prezioak gora

Gipuzkoako Foru Aldundiaren arabera, hemen, joan den mendeko 70eko hamarkadatik aurrera handitu zen angulari kopurua, batez ere estimu gastronomikoa handitu zelako eta jatetxeetan luxuzko platertzat hartzen hasi zelako; orduan hasi ziren angulen prezioak garestitzen. Ondoren, 80ko hamarkadan, Frantziako hego-mendebaldeko arrantzaleak angulak japoniarrei saltzen hasi ziren, eta ondorioz, prezioak eta kontsumoa biak handitu ziren asko.

Furtibismoa, kutsadura...

Edozelan ere, Castrotarren ustez arrazoi asko daude angulak gutxitzeko, furtibismoa, kutsadura, klima aldaketa, larregiko arrantza, txori harrapakariak... "Gure ustez, angulak gutxitzearen benetako arazoa arrantza furtiboa eta larregiko arrantza dira. Lizentzia gabe dabiltzanak ez dituzte behar den moduan kontrolatzen. Aurten Seprona hasiko da zeregin horretan eta espero dugu kontrol hobek egitea. Kupoak ere ipin daitezke, baina denondako. Dena den, Deban oso angula kopuru txikia harrapatzen da, biologoen esanetan, sartzen den angula kopuru osoaren %10-%12a bakarrik. Txori harrapakariak, adibidez, angula mordera jaten dituzte. Halako batek 2 kilo arrain inguru jaten ditu egunero. Txori mota horiek (ubarroiak, koartzak...) lehen ez ziren gure ibaietan geratzen eta gainera azken urteotan

nabarmen ugartu dira. Bestalde, ibaien egoerak ere eragiten du angulen gutxitzean. Kutsadurak (ibaikoak, fabriketatik eta ortuetatik datorrenak), araztegiek, presek... eragotzi egiten dute angulak haztea. Baina arazoa ez gara gu. Beste detallean bat. Aitaren bizitokia martxora arte izaten dugu piztuta. Gero, geratzen diren azken 150-200 angula gramoak ibaira soltatzen dituzte nire lobek. Horregatik daude hemen angilak. Orain, ur-saltoekin angilak ezin dira honaino iritsi, hemen daudenak guk askatutakoak dira", azaldu du Maidarrek.



Adur Odriozola eta Mouad Hina Ben-Sellam zubian, martitzenean.

"Urtarrilean Euskadiko Txapelketara goaz"

ADUR ODRIOZOLA ETA MOUAD HINA KICKBOXING BORROKALARIAK

Bihar, zapatua, Adur Odriozola eta Mouad Hina soraluzetarrak Madrilera doaz, kickboxing-eko gaubela batean parte hartzera.

Bihar, zapatua, Adur Odriozola eta Mouad Hina soraluzetarrek Madilen jokatuko den K1 MASL kickboxing gaubelan parte hartuko dute, Iurretako Gerlari Team gimnasioaren izenean. 20:00etan dute hitzordua, pare bat ordu lehenago, pisaketa.

Adur zuretzat kickboxingean debuta izango da Madrilgoa, ezta?

Bai, kickboxingean orain dela 5 hilabete hasi nintzen, Eibarren. Gero Iurretako Gerlari Team

gimnasiora pasatu naiz eta han esan didate ez nautela txarto ikusten eta nahi izanez gero, borrokatzeko moduan nagoela. Horregatik animatu naiz. Dena den, boxeoan bi bider borrokatu naiz. 2018an debuta eta gero 2019an berriro. Hala ere, urduri nago.

Zuk, Mouad, Bilbon debutatu eta gero, beste modu batera ikusten duzu Madrilgoa?

Bai, askoz hobeto, lasaixeago. Lehenengo borrokan zalantza

asko izaten dira. Gero, uxatzen zoaz. Ikusi nuen urduritasunak saihestu ahal badira, hobeto dela. Azken egunera arte, normal egongo naiz. Irabazle pentsamoldearekin atera behar zara, berdin da zein den arerioa. Dena den, liga amateurrean gaude. Emaizta ez da horren garrantzitsua. Eta Iurretako gimnasiokoek esan didate aukera mordoa egongo direla.

Euskadiko Txapelketara ere bazoazte gero, ezta?

Bai, urtarrilaren 29an. Ni (Mouad) ringean, 57 kilotik beherakoen mailan lehiatuko naiz. Ni (Adur) tatamian, 74 kilotik beherakoen mailan.

Zelakoak dira zuen entrenamenduak?

Astelehenetik ostiralera entrenatzen dugu, Iurretan, astean 8 ordu. Eta zapatuetan sparring orduak izaten ditugu. Muskularrak, kardio ariketak eta teknika lantzen ditugu. Horrez gain, batzuetan gimnasio profesionaletara gonbidatzen gaituzte, Aratz Garmendia Kamikazeren gimnasiora, Giorgi Bazanov-en gimnasiora... Bilbon daude.

"ANIMATU NAIZ ESAN DIDATELAKO NAHI IZANEZ GERO, BORROKATZEKO MODUAN NAGOELA"

"RINGERA IRABAZLE PENTSAMOLDEAREKIN ATERA BEHAR ZARA, BERDIN DA ZEIN DEN ARERIOA"



Etxola eta berau apaintzen jardun duten herritarrak.



Soraluze kantuan CDaren azala.



Pareketan jolasa.

Musika da aurtengo gaia

Musika gaitzat hartuta apaindu dute aurtien Mari Domingi eta Olentzeroren etxola eta 24an herriko kantuekin osatutako CDa oparituko diete umeei. Gutunen bilketa frontoi zaharrean egingo dute.

Gabonak ate joka direla, Kukumixo eta Pil-pileaneko kideek prestatu dute Plaza Berriko etxola. Musika da aurtien aukeratu duten gaia "alaitasuna ematearren" eta musika instrumentu mordoxka batekin apaindu dute etxola eta ingurua.

Abenduaren 24ko ekitaldiari dagokionez, iazko moduan, kalejirarik ez da izango eta

gutunak hartzea adinarean arabera antolatutako da hiru txandatan: LH 3-4-5-6 11:00etan, 0-4 urte 12:00etan, HH5 eta LH1-2 13:00etan. Osasun neurriak direla eta, frontoi zaharrean egingo da.

Kantuen CDa eta Pareketan

Musika izango da aurtien umeei banatuko dizkieten opariaren osagai nagusia; izan ere,

Kukumixok Soraluzeko hamaika kanta batzen dituen CDa osatu du abenduaren 24an ume bakoitzari ale bana emateko. *Gabon gabonete* eta *Negua iritsi da* moduko Gabon kantez gain, ezezagunagoak diren *Amilatee ta marixa*, *Elgeta errekadistia*, *Nik baditut hiru tatxa...* herriko kantuak sartu dituzte.

Bestalde, Pareketan izeneko memoria jolasa ere argitaratu du Kukumixok. Bertan, irudi ilustratu bidez emanda, Euskal Herriko 36 emakume "erreferente" ageri dira: idazleak, kirolariak, ilustratzaileak, aktoreak, musikariak, kazetaria, zientzialariak... Tartean, herriko bi emakume: Ixa Rodriguez boxeolaria eta Cris Jakas suhiltzailea. Jolasa salgai dago Pil-pileaneren eta Iratxon, 5 euroko prezioan.

Ekitaldietako batzuk



ARTEA Keixetaren margolan eta zeramikak

Txiki Agirre *Keixeta* artista ezagunaren *Konfinatuta* izeneko margolan eta zeramika erakusketa ikusgai dago Oreka Art galerian. Bustoak eta koadroak dira, Arroako artistak konfinamendu garaian sortu zituenak. *Urtarrilaren 9ra arte, astegunetan, 19:00-20:00 Oreka Art galerian.*



MUSIKANTUA Abesbatzaren Gabon kontzertua

Ezoziko Ama Abesbatzak kontzertua eskainiko du euskarazko, gaztelaniazko eta ingelesezko kantuz osatutako erreperorioarekin: *Kantauri, Itsasoa gara, Bring me little water silvy, Let the river run, La llamada...* *Abenduak 30, 20:00etan, Herriko Antzokian.*



MUSIKA Euskal danbolinaren aroak

Txistu eta danbolinez eta pianoz jotako kontzertua eskainiko dute Piter Ansorenak eta Joxerra Senperenak. 1827ko dantzarako soinetatik hasi eta egungo esperimendazio freskagarrietaraino. *Urtarrilak 9, 19:00etan Herriko Antzokian.*

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa





**ETORKIZUNA
ORAIN**
Es futuro

TicketBAI

Etorkizunerako prestatzen.













2022an, **TicketBAI** Gipuzkoara iritsiko da. Etorkizunerako prestatzen gaituen online fakturazio-sistema berria.

Anima zaitetz zure enpresan edo negozioan borondatezko epean ezartzera eta ezagutu kenkariak eta abantailak.

Informa zaitetz

-  gipuzkoa.eus/ticketbai
-  Aurrez aurreko informazioa (hitzordua)
-  943 113 000
-  ticketbaikontsultak@gipuzkoa.eus



TicketBAI
GIPUZKOAN | EN GIPUZKOA
gipuzkoa.eus/ticketbai

"Nahiko erraza da bizitza Soraluzen egitea"

PATXI OSA ANDIA BERGARATIK SORALUZERA

UBANE MADERA ZANGITU

ARGAZKIAK: UBANE MADERA ZANGITU

Patxi Osa Andia (Bergara, 1972) 2009ko irailetik bizi da Soraluzen, Eider Ruiz Pascual (Bergara, 1980) bikotearekin batera Bergaratik etorrira. Oso ezaguna da herrian, besteak beste, 2010etik Arane kiroldegian lanean dihardu-eta, harreran zein mantenu lanak egiten.

Kiroldegian lan egiteaz aparte, kirolzalea ere bazara, ezta?

Bai. Gaztetan beti ibili naiz futbolekin. Bestela ere, denetik egin izan dut, saskibaloia, tenisa, igeriketa... eta korrika egiten hasi nintzen orain dela 8 urte. Orain korrika eta igerian egiten dut. Beti gustatu izan zait kirola. Hona etorri arte, futbitoan jokatzin nuen lagunekin. Hemen ere hasi nintzen horretan, baina bigarren semea jaio zenean laga egin nion. Futbola gorputzarendako agresiboagoa da eta gero buelta ematea gehiago kostatzen da.

Aurten badiharduzu lasterketetan parte hartzen?

Oraingoz, igerian, Zarazutz-Zarautz lasterketa, Getaria-

Zarautzen partez ipinitakoa egin nuen, hiru kilometroko zeharkaldia. Bestela, Iñaki Ruiz lasterketa eta Soraluzen daudenak egiten ditut. Aurten, abenduaren 19an, Gasteizko maratoi erdia egiteko izena emanda daukat eta ondo bidean, egingo dut; urtero egiten dut, iaz izan ezik, ezin zelako.

Zein lekutan duzu gustuko entrenatzea?

Uste dut hemen zorte handia dugula bidegorriarekin. Korrika egiteko aukera mordoa daukazu, Bergararaino, Oñatiraino... Mendian ere asko gozatzen dut, Karakatera, Irukurutzetara, Pol-polera... Zentzu horretan, pribilegiatuak gara, lauan, mendian... egin ahal dezakegulako korrika.

12 urte Soraluzen. Soraluzetar moduan ikusten duzu zure burua? Bergarar moduan?

Hemen soraluzetarra eta Bergaran bergararra. Egia esan, umeak jaio zirenetik gutxiago joaten gara Bergarara. Saiatzen naiz aldiro lagunekin bazkari-afari bat egiten, gurasoak bisitatzen...

Gustura bizi zara Soraluzen?

Bai. Lehenagotik ere ezagutzen nuen hemengo jendea. Institutuan soraluzetar baten lagun egin nintzen, hemengo jaietara etortzen nintzen... Soraluzen kuadrillatxo bat izateak, akaso, erraztu egin zuen hemengo bizimodua. Eta umeak jaio zirenetik, errazena da bizitza hemen egitea.

Zelatan etorri zineten Soraluzera?

Etxe bila genbiltzan eta 2008an Bergarako etxeek aberatsendako prezioak bakarrik zituzten. Ikusi genituen benetako astakeriak prezio-kalitate aldetik. Eider apuntatuta zegoen babes ofizialeko zerrendan etxea erosteko eta deitu egin zioten Soraluzetik. Hona etortzeko erabakiaren arrazoia etxea izan zen.

Igartzen duzue jaioterriko zerbait faltan?

"MUSIKA TALDEEKIN IBILI NINTZEN ASKO ROAD MANAGER ETA ORDEZKARI LANAK EGITEN"



Patxi Osa Andia kiroldegiko harreran.

Patxi Osa, Eider Ruiz eta Iker eta Asier.

Hasieran akaso bai. Orain ya ez. Hemen eroso gaude. Egia da Bergaran baino zerbitzu gutxiago daudela eta batzuk faltan igartzen direla, baina oinarrizko zerbitzuak badaude: Haurreskola oso on bat, eskola, kiroldegi ona... Familia bat hazteko Soraluzen dauden zerbizuekin gustura nago.

Zure lanaren ondorioz, herri guztia ezagutuko duzu ya, ala?

Bai, ze hemendik herri guztia pasatzen da, umeak, gurasoak, aiton-amonak helduak... Herri guztia ezagutzen dut eta herri guztiak ezagutzen nau ni, onerako eta txarrerako.

Hemen lan egin baino lehen, baina, musikarekin izan zenuen lotura handia...

Bai, musikarekin eta ostalaritzarekin. Ostalaritzan 18 urterekin hasi nintzen, Etxagin. 20 urtez jardun nuen. Gero, Jam-a sortu genuen eta hor 12 bat urte egin genituen.

Zelan daukazu sasoi hura gogoan? Zelako aldaketa!

Musika taldeekin kanpoan asko ibili nintzen, road manager eta halako lanak egiten, baina beste lan asko tabernan egiten nuen, jendearekin

harremanetan. Taldeak ordezkatzeko enpresa bat ere bageneukan, Sociedad Alkoholika, Kaotiko, Sen... Urte politak izan ziren, baina bizitza horrek (gauak) asko erretzen du... Azkenean desegin egin zen. Ni, orain, gauez ez naiz batere ibiltzen eta ez dut faltan igartzen. Orduan, gustura egin nuen. Gero aldatu egin nuen bizitza. Uste dut nahiko moldagarria naizela.

Nabarmenduko zenuke sasoi hartako zerbait?


Hainbeste gauza daude... Adibidez, Loquillo beti etortzen zen Gabonen aurreko astebukaeran, Iron Maideneko abeslari Bruce Dickinson, Sepultura, Motorhead, Andres Calamaro... Ezagun asko egon ziren Jamen. Barricada, Femin, Su ta Gar, Fito, Mikel Erentxun, Extremoduro... Horiek, adibidez, etortzen ziren astebete entseatzera.

Asko ibili zara jendaurrean, badirudi gustuko duzula.

Bai, tabernari izan nintzenean ere gustura egiten nuen zerbait zen. Eta gustukoa izan ezean, oso zaila da jendaurrean ibiltzea.



The Business taldea Jam aretoan, 2000n.



Patxi Osa lasterketa baten.

Abenduko irudiak gogoan

1996tik, Pil-pilean herri-komunikabideak plazentziatarren historiaren kronika bizia jaso du milaka argazki, testu eta bideoen bitartez. Oraingoan, abenduko argazki esanguratsu batzuk bilatu ditugu artxioban eta ondorengo bostak aukeratu ditugu.

Argazkiak: **Pil-pileanen artxiboa**. Testua: **Egoitz Unamuno**.



IRATXO GOXODENDA (2002)

1990ean zabaldu zuten Maria Jesus eta Fernando Agirrek Iratxo Goxodenda Agirrena edo Denda berria izenez ere deitu izan zaiona Etxaburueta kalean, txikienen zorionerako. Herritar askok gogoan izango dituzte lehen urteetako futbolin eta makinetako jolasak... Gerora, herriko dendarik mitikoenetako bat bihurtu da, batez ere mostradorearen atzean egon diren eta dauden pertsonengatik.

GAZTELUPEKO HOTSAK (2002)

2000ko hamarraldiaren hasieran diskogintza bor-bor zegoen eta baita Gaztelupeko Hotsak disketxea ere. Garaiko kronikak dioen moduan, "Gaztelupe tabernako blues eta poesiazko ordu txikien handitasunean sortu zen disketxeak eta gerora bide luzea egin du Euskal Herriko musika munduko erreferentziarik garrantzitsuen eta berezietako bat izatera heldu den arte".





EKUATORIARRREN JAIA (2003)

Soraluzeko ekuatoriar komunitateak Ekuadorko hainbat herritan ohiturazkoa den La Princesitaren aukeraketa jaia antolatu zuen abadetxeko aretoan. Duela hamarkada bat Ekuadorko herritar asko etorri ziren Soraluzera bizi izatera. Gerora, orduan etorritako asko euren herrialdera bueltatu dira.

RAMIRO LARRAÑAGA (2003)

Ramiro Larrañaga historialari plazentziatarra San Telmo museoaren Ohorezko Lagun izendatu zuten. Ekitaldian, Montserrat Fornells Museoaren Lagunak elkarteko zuzendariak eskertu zion armagintzaren historia aztertzen egindako lana eta museoari egindako dohaintzak. Soraluzeko Udalaren izenean, oroigarri bat eman zion garai hartan alkate zen Alberto Sodupek.



ESKOLATIK IRTEERA (2003)

2003an burdinaren bidea ezagutzera joan ziren Plaentxi Herri Ikastetxeko 5. eta 6. mailako ikasleak. Irteera hartan, Zerain, Mirandaola eta Ormaiztegi bisitatu zituzten. Han edandako urak on egin eta gaur egun majo koskortuta daude orduko gaztetxoak.



PIL-PILEANEN ARTXIBOTIK



BIZIKALEREN SORRERA (2008)

2008an ekin zioten herriko hainbat merkatarik herrian merkatarik elkarte bat sortzeko biderei. Udalak deituta bilera bat egin ostean, aurrera egin eta elkarte bat sortzea erabaki zuten Bizikale izenarekin. "Eman bizia erosi herrian" zen aukeratu zuten leloa, gaur egunerako ere berdin berdin balio duena. Ordutik, zenbat ekitaldi eta zenbat ahalegin herria eta herriko merkataritza indartzeko. Bejondeizuela!

SAN SILBESTRE (2013)

2010eko hamarkadaren hasieran, herritar talde batek urteko azken egunean lasterketa antolatzeari ekin zion. Beste herri askotan moduan, urtea kirola eginez eta umorez amaitzeko aukera ederra eman izan du ekimen honek. Urte batzuetan Soraluze Mugituz mugimenduak antolatu du baina pandemiak geroztik ez da antolatu.



PIL-PILEANEN URTEURRENA (2016)


2016. urtean bete zituen Pil-pilean Euskaltzaleen Elkarteak 20 urte eta urte hartako abenduan jai egitarau zabal eta jendetsua antolatu zuen, adin guztietako ehunka euskaltzale batuz plazara. Aurtan, Elkarteak 25 urte bete ditu baina garai nahasi honetan nahiago izan dugu emnde laurdeneko ibilbidea ospatzeko okasioa aurreraxeago lagatzea.



Aldizkari guztiak online

1996tik 2021ra bitartean argitaratutako 380 aleak ikusgai daude Plaentxia.eus-en

Kontsultatu
plazentziatarren
25 urteko
historia
Pil-pilean
aldizkarian



ZERBITZUAK

ZORION AGURRAK



Jon Agirre
Abenduaren 5ean,
42 urte. Zorionak
etxeko paparazziari!
Asko maite zaitugu!



Nagore
Abenduaren 18an, 3
urte. Zorionak
Nagore! Zurekin bizi
dugu poza ta algara.
Etxekoak.



Malen, Aitor eta Joanes Ugalde
Abenduaren 18an eta 19an, 13 eta 10 urte.
Zorionak hirukote. Asko, asko maixte
zaituztegu. Segi gure bihotzak alaitzen.
Etxeko guztien partez!

JAIOBERRIAK



Amets Caballero Ruiz
Abenduaren 11n jaio zen.

HILDAKOAK ETA JAIOTAKOAK

Hildakoak

Magdalena Garcia Ramirez.
Sofia Sainz Alonso.
Josefa Muguruza Ugarteburu.

Jaiotakoak

Amets Caballero Ruiz.

OHARRAK

Lan eskaintza

Elgoibar-Zestoa inguruko
enpresa batek langileak behar
ditu. Mekanikaria eta doikuntza
eta muntaia lanetarako
persona bana behar dituzte.
Interesa dutenek curriculum
bidal dezakete honako
helbidera: 309 posta kutxatila,
20.800, Zarautz.

Sukalde
tradizionala
Eguneko menua
Asteburuetan
menu berezia
Karta
Burduntzian
erretako bildotsa
Etxeko fritokak
Soufflés
Tel.: 943 75 10 02

**Armendi
Jatetxea**

**ELIZPE
HORTZ KLINIKA**

Zure genetik hartu klinika,
puntu puntako teknologian lan
egiten dugu. Cadi-Cam sistema
berrikalku erabiltzen dugu.

Elizburu, 3 behea
SORALUZE
Tel.: 943 75 25 67
e-mail: elizpe.kl@gmail.com

Ordutegia:
Astelehenetik ostiralera
10:00 - 11:00 eta 16:00 - 20:00

**Etxabe
Harategia**

- Etxera eramaten da
- Enkarguak hartzen dira
- Sorakuntza basemutako
produktuak
- Etxeko tripaiki eta txistornak

Etxaburuta 5
Telefonoa: 943 75 23 75

Bidelagun euskaltzaletasunean



aras



**laibi
ELECTRICIDAD**

ESKELAK

ESKELA	
<h2>Iñaki Diaz Guenaga</h2> 	
<p>2021eko abenduaren 2an hil zen, 67 urte zituela.</p>	
<p>Azkien momentura arte irribarra aurpegian eta alaitasuna gurean. Beti egongo zara gure bihotzean.</p>	
<p>Etxekoak.</p>	



ESKELAK JARTZEKO: 943 75 13 04
edo eskelak@pilpilean.eus

Hil diren herritarren eskelak, oroigarriak eta urteurrenak argitaratzen dira aldizkarian eta Plaentxia.eus webgunean.

Tarifak:

- ▶ Arrunta: 75 € / Bazkideek 60 €
- ▶ Handia: 120 € / Bazkideek 96 €

Pil-pilean eta Plaentxia.eus: irakurrienak Soraluzen.



10 urte zure ondoan

10

betiON, Euskadiko Telelaguntza Zerbitzu Publikoaren medaila gorriak segurtasuna eta lasaitasuna eskaintzen digu eguneko 24 orduetan.

Argibide gehiago hemen:
www.euskadi.eus/betion
900 851 600
012 Zuzenean

Euskadi, auzolanean





Xabier Lapitz: Kazetaria
Itziar Aizpuru: Aktorea

GABONETAN ERE, HONDAKINAK BIRZIKLATU ETA IZAN GARBI!

*Denona da,
izan garbi*

 DebaBarrena

